

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 19a / 606. zenbakia



HERRIKO MUSIKARIAK

Santa Zezilia, zaindariaren eguna ospatuko dute

KIROLGUNEA: ERAIKIN ZAHARRA BOTA DUTE/4 • ELKARRIZKETA: IÑIGO ANSUATEGI ERRUGBILARIA/9

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 19**
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87
- ZAPATUA, 20**
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05
- DOMEKA, 21**
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 22**
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63
- MARTITZENA, 23**
MOZOS, Iparragirre 2 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 24**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74
- EGUENA, 25**
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Pedro
Domekak:
09:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegaraieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:00. |
| Santa Marina
Zapatuak:
19:00.
Domekak:
13:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Antzuola
Domekak:
10:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean.

OHARRAK

- 1980AN JAIOTAKOAK**
1980an jaiotako enbarkaria azaroaren 27an, Txarran-txan. Izenematea Euskadi-ko Kutxan.
- 1957AN JAIOTAKOAK**
1957an jaiotako enbarkaria azaroaren 27an, Zumelagan. Frontoian elkartuko dira, 21:00etan. Izenematea (10 euro aurrez) Intxorta tabernan.
- 1946AN JAIOTAKOEN AFARIA**
1946an jaiotako enbarkaria azaroaren 27an, Tartufo jatetxean (943 76 35 51).

- 1934AN JAIOTAKOAK**
1934an jaiotako enbarkaria azaroaren 27an, Torrekua jatetxean, 14:45ean. Izenematea (12 euro aurrez) Torrekuan bertan.
- 1944AN JAIOTAKOEN AFARIA**
1944an jaiotako enbarkaria azaroaren 27an, Azpeitxi jatetxean. Izenematea: 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano).

- 1950EAN JAIOTAKOEN AFARIA**
1950ean jaiotako enbarkaria abenduaren 4an, Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Izenematea (38 euro) Euskadiko Kutxan.

- IPINTZA INSTITUTUA**
Batxilergoko ikasgaiak gainditu gabe dituztenen dako matrikula epea azaroaren 30era arte zabalik dago. Argibideak 943 76 31 42 telefonoan.

JARDUNEN AGENDA

- ARRATERA IRTEERA**
Abenduaren 10etik 12ra bitartean Txapligu taldeko endako Arratera irteera izango da. Izenematea eta argibideak Jardunen.

URBANOEN ORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta / Olabarrentik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAIN DELA 10URTE BERGARAN


Martin Egaña, hirugarren Espainiako AX Kopan

Martin Egaña auto gidaria hirugarren sailkatu zen Espainiako AX Kopan. Txapelketako azken proba irabazi zuen Jerezko zirkuituan, 1994ko azaroaren 20an. Aurretik, Albacete, Alcañiz eta Jaramako probetan garaile izan zen Egaña. Gainerako lau karretetan izandako arazoengatik ez zuen txapelketa irabazterik izan.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Gor"



Gorra.
— Egundoko gorra ein jakon kontzertuan.

JON IRAEGI

ASTEKOPELIKULAK

'DIARIOS DE MOTOCICLETA'

ZUZENDARIA: WALTER SALLES. **AKTOREAK:** GAEL GARCIA BERNAL, RODRIGO DE LA SERNA.

HARIA. 1952. urtean *Che* Guevarak Hegoamerikan zehar egindako bidaiak kontinentearen errealtatea erakutsi zion...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'EL POLAQUITO'

ZUZENDARIA: JUAN CARLOS DESANZO. **AKTOREAK:** ABEL AYALA, MARINA GLEZER, FERNANDO ROA, LAURA SPINOLA.

HARIA. Kaleko mutiko batek tangoa abesten ditu Buenos Airesko tren geltoki nagusian. Pelu izeneko prostituta gazte bat ezagutuko du eta hura estutzen duen mafiari aurre egingo dio. *El Polaquito*-k argi dauka Pelurekin aurrera egin nahi duela...

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, azaroaren 25ean, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ATREBENTZIAEZPADA/ Santa Zezilia datorrela-eta, zein musika-instrumentu jo nahiko zenuke?



ANDONI GALLASTEGI
8 urte



AINHOA MARDARAS
9 urte



ANDONI SANZ
8 urte



MIREIA IBABE
6 urte



IÑAKI GALARRAGA
8 urte



SAIOA AGIRRE
8 urte

Ez naiz musika eskoletara joaten, baina halako baten instrumentu bat aukeratzeko gitarra elektrikoa joko nuke, rock musika gogoko dudalako. Agian lagunekin talde batean joko dut.

Nik akordeoia jotzen dut eta gustatzen zait, batez ere Gabonetako abestiak jotzea. Santa Zezilia Eguna ospatuko dut kalean, Musika Eskolakoekin kantatuz eta txokolatadarekin.


Ez dut musika ikasten, baina inoiz instrumenturen bat aukeratzeko tronpeta hartuko nuke; botoiak zapaltzea gustuko dut eta tronpetaren doinua ere gustatzen zait.

Panderoa jotzen dut, trikitixa gustatzen zaidalako, eta entseatzeko entzuten dut. Beste instrumenturen bat aukeratzeko gitarra hartuko nuke; egunen baten jotzen ikasiko dut.

Gitarra elektrikoa jotzen ikasiko nuke, rock musika gustatzen zaidalako, eta entzun ere egiten dut. Hala ere, ez dut uste inoiz musika talderen bateko partaide izango naizenik.

Musika Eskolara joaten naiz eta klarineta jotzen dut. Leku bat libre zegoen, eta horregatik hasi nintzen klarineta jotzen, eta gustuko dut. Bestela, denetarik musika entzuten dut.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK NOVEDADES ARETOA Neska koadrila batek deitu digu aste honetan, Novedades aretoaren gainean kexa azaltzeko. Zapatu gauean *Mar adentro* filma ikusten izan ziren. Emanaldia hasi eta handik ordu erdira proiektoreko huts bategatik etenaldia izan zen, ikusleei inolako azalpenik eman gabe. Hori gutxi balitz, Novedades aretoke jarlekuak oso egoera txarrean direla kexu dira neskak. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /6	KIROLA /8	KULTURA /12
Drogen prebentzioa Gazteak eta drogen gaineko jardunaldiak izan dira. Nagore Ibarra elkarrizketatu dugu.	Bergara-Real Union B Bergara KEko preferente mailako taldeak Real Unionen izango du bisitar, zapatuan Agorrosinen.	Txapa Irratiak 20 urte Txapa Irratiaren 20. urteurrena ospatzeko ekitaldiak izango dira zapatuan, egun osoz.

ASTEKODATUA

10

GOL EGIN ZIZKION GAZTE TALDEAK SEGURARI

David Lopez de Abetxukok eta Jose Ramon Beristainek zuzentzen duten lehen gazte mailako taldeak 10-1 irabazi zion zapatuan Segurari, Ipintzan. Denboraldi borobila egiten dihardute.

BESTEKEESANA

“ Bergaran inauguratu berri dugun Pakearen zentroan berrikuntza prozesu garrantzitsua egin dugu ireki aurretik. Instalazioetan teknologikoki aurreratuak diren zerbitzuak ipini ditugu eta bertan kualifikatutako profesionalak jardungo dute lanean. Beraz, ez dugu inongo zalantzarik, enpresaren eta langileen mundura bideratutako hobekuntza hauek Pakearen lidergoa finkatuko dutela ibarrean osasun asistentzian, formazioan eta lan arriskuen prebentzioan ezinbesteko erreferentzia puntu bihurtuz. Beraz, zentro berri hau eredugarria izango da instalazioei dagokienez, espezialitatei dagokienez eta batez ere egunero langileen eta inguruko enpresen beharrei erantzuten dieten profesionali dagokienez”
JOSE MARIA ECHARRI / Pakeako presidentea ‘El Diario Vasco’/04-11-12

BERAIEKDIÑOĖ/ Jon Suinaga



Abiadura gehiegi

Aurreko goiz baten iratzargailuak jo zuen momentuan hasi zen eguneroko karrera. Salto batekin ohetik jaiki eta presaka dutxatu eta bizarra moztu. Erlojuaren kontra jantzi eta gosaldia, eta kohete bat bezala azkar kalera laneko bidean.

Kalea zapaldu bezain laster konturatu nintzen egun berezi bat izan behar zela. Sekulako zaparrada eta ni aterki barik. Beranduegi zen buelta emateko. Korrika, saltoka putzuak saihesten, bidea irekitzen eta aurrera. Eguna hasi berria eta goitik bera bustita!

Autora gerturatzen nengonean gauza harrigarri bat gertatu zitzaidan. Gizon susmagarri bat nire autoan sartu, arrankatu eta ziztu bizian ospa egin zuen. Nire aurretik pasatu zenean putzu bat zapaldu eta goitik behera zikindu minduen. Han nengoen ni *flipatuta* eta goitik behera bustita, dena lokatzez beteta.

Gertakariaren ondoren oso berandu iritsi nintzen lanera, irteteko orduan. Harrituta gelditu nintzen, egun horretarako neuzkan lan guztiak eginak zeuden. Pozik jarri nintzen, nire lana eginda, nik egin gabe. Segituan pasa nintzen pozetik kezka: nork egin zuen nire lana? Baten batek ni ordezkatzea nahi du? Ez naiz beharrezkoa lanean eta bota egingo naute?

“Baten batek ni ordezkatzea nahi du? Ez naiz beharrezkoa lanean eta bota egingo naute?”

Etxera ailegatzeko desatzen nengoen egun aldrebes hori ahazteko asmoarekin. Baina oker

nengoen, etxean beste sorpresa bat neukan zain. Arrotz bat zegoen etxe barruan. Baina nor izango zen, eta zertan zebilen nire etxean tipo hori? Bat batean nire bihotzak buelta erdi eman zuen, autoa lapurtu zidan tipo bera zen! Baina harrigarriena ailegatzeko zegoen. Arrotz hori nik neuk nuen!

Gizarte honetan batzuetan hain presaka eta korrika bizi gara, guk geuk ere ezin dugula jarraitu.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegia
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala



Antzibar enpresako langileak joan den irailaren 15a ezkerri ari dira kirolgune berriko proiektuan lanean.

Agorrosingo igerilekuen eraikin zaharra bota dute

EDU MENDIBIL

Antzibar SL enpresako langileek Agorrosingo igerilekuko eraikin zaharra bota zuten aurreko astean. Antzibar enpresa joan den irailaren 15a ezkerri dabil kirolgune berriko proiektuan lanean. Bergarako Udalak Antzibarri adjudikatu zizkion lehen fase honetako lanak, bi milioi eurotan.

Taberna zaharreko eraikina eta barruko igerilekuko bota-

tzeaz gain, instalazio berriaren urzikinen hoditeria jartzeaz arduratuko da Antzibar. Barruko igerileku zaharreko eraikina botatzen kontu handiz ibili behar izan dira. Izan ere, sabaia uralitakoa zen eta amiantoak toxikotasun handia dauka. Hori dela eta, uralitaren tratamenduan espezializatutako AGR bizkaitar enpresako langileak etorri ziren sabaia kentzera, Antzibar enpresak azpikontratatu.

MAIATZETIK AURRERA, HURRENGO FASEA

Hasiera baten, lehenbiziko faseak zortzi hilabete iraungo du. Maiatzaren erdialderako bigarren fasearekin hastea da Udalen asmoa. Barruko igerilekuak, eraikina eta ekipamendua egiten hasiko dira orduan. Udaleko iturrien arabera, kanpoko igerilekuak 2006rako egingo dira eta teilatu teleskopiko bat edukiko dute, udan irekita eta neguan itxita izango dena.



Lorontziak harrien orde, udaletxearen atzealdean

Aurreko astean lorontziak jarri zituzten udaletxearen atzealdean eta San Pedro parrokiaren ondoren, lehen harri bolak ziren lekuan. Kontua da hainbat herritar kexatu zirela, zenbait jendeke estropezu egin ondoren. Bertan autorik ez aparkatzeko ere hartu dute lorontziak jartzeko erabakia. Olaso Dorrearen sarreran ere beste horrenbeste egin dute.

Zaharren astearen amaiera zapatuan Mizpirualden

E.M.

Bihar, zapatua, Mizpirualde egoitzako asteari amaiera emango zaio. Musikaz lagundutako meza izango da 11:45ean eta 13:00etan bazkaria. Udaleko ordezkariak ere bertan izango dira. Bazkalostean, berriz, opariak zozketatuko dituzte bildutako artean, eta Xamatx dantza taldearen emanaldiarekin bukatuko dira aste-ko ospakizunak.

Mizpirualde egoitzako giroa pizteko helburuarekin hainbat ekitaldi izan dira astean zehar.

Azken urteotan urteko sasoi honetan ospatu izan dute Mizpirualdeko astea. Ekitaldiok bereziki egoitzan bizi diren 111 lagunei zuzendutakoak dira. Besteak beste, magia ikuskizunak, karta txapelketak, jokoak, dantza eta musika emanaldiak izan dira astelehena ezkerri. Gaur, egubakoitza, Moises Aspiatzuko dantzariak emanaldia egitekoak ziren, 17:30ean.

Mizpirualdeko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete aste-ko ekitaldietan parte hartu duten herriko taldeei.



IRATI AGIRREZALDEGI

Eguaztenean karta txapelketak eta Musika Eskolako trikitilarien saioa izan ziren.

LABUR

Telesforo Monzonen gaineko mahai-ingurua gaur, egubakoitza, Olaso Dorrean

Telesforo Monzonen inguruko mahai-ingurua izango da gaur, egubakoitza, Olaso Dorrean, 19:00etan. Juan Ignacio de Uriak, Piarres Xarritonek, Joxe Mari Urkiak eta Victoriano Gallastegik hartuko dute parte eta moderatzailea Jose Luis Elkoro izango da.

Iñaki Anasagastiren hitzaldia hurrengo egubakoitzean, Miguel Altuna aretoan

Bergarako Batzokiaren lehen mendeurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, Iñaki Anasagastik *Mendeurren baten gogotak* izenburuko hitzaldia egingo du hurrengo egubakoitzean, azaroaren 26an, Miguel Altunako aretoan, 19:30ean.

Bergarako EAJK alderdikide eta herritar guztiei hitzaldira joateko gonbidapena egiten die.

Bideo emanaldia eta Gorlara irteera gaur, Ilatargi Astronomia Taldearen eskutik

Debagoieneko Ilatargi Astronomia Taldeak antolatuta, bideo emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Bergarako kultura etxean, 19:00etan. Iñigo Loitik 2004ko ekainaren 8an izandako Artizarren igarotzean grabatutako bideoa proiektatuko da. Ordubetik irautu du bideoak.

Bideo emanaldiaren ondoren, Ilatargikoek Gorlara igotzeko asmoa dute, izar-auria ikustera.

EUSKARA / Udaleko Euskara Batzordeak, Debagunek eta Jardunek bultzatuta

Komertzioetan euskara bultzatzeko kanpaina abian

E.M.


Hemen be euskaraz egin zeinke lelopean, herriko komertzioetan euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina abian jarriko dute datorren astean. Erosketak egiteko orduan jendeak euskara erabiltzea da kanpainaren helburu nagusia.

Udaleko Euskara Batzordeak, Debagunek eta Jardun elkarteak jarriko dute kanpaina abian. Esan bezala, saltokietan eta herriko tabernetan jendeak euskara erabiltzea da kanpainaren helburua. Hori dela eta, jendea euskara hitz egitera gonbidatuko duen pegatina bat jarriko da herriko komertzioetan. Kanpainaren bultzatzaileek ondoko leloa aukeratu dute: *Hemen be euskaraz egin zeinke*. Dendetan ikusgai jarriko den ikurrak datorren urteko egutegia ere izango du.

ZERBITZU JARRAITUA

Kanpaina Euskara Biziberritzeko Planaren barruan kokatzen da. Udaleko Euskara Zerbitzuak aurretik ere badihardu herriko komertzioekin lanean. Euskara Zerbitzuak emandako datuen arabera, herriko 150 denda ingururi eskaintzen zaio zerbitzua, euren jarduna euskaraz izateko helburuarekin. Besteak beste, erroto-luak euskaraz jartzeko dirulaguntzak ematen ditu Udalak.

Datorren astean abian jarriko duten kanpaina aurretik Arra-



AINZANE IRIZAR

Bezeroen eta dendarien arteko harremanak euskaraz izatea lortu nahi da.

Jendea euskara erabiltzera bultzatuko duten ikurrak jarriko dira


saten, Aretxabaletan, Oñatin edo Antzuolan ere egin dute, Debaguneren ekimenez.

Bezeroen eta dendarien arteko harremanak euskaraz izatea da kanpainaren helburua. Bestalde, lan munduan ere antzeko ekimenak bultzatzen aztertzen dihardu Udalak.

LABUR


Bihotz Bakartien Klubaren poesia emanaldia hurrengo egubakoitzean, gaztetxean

Jardun elkarteak antolatuta, Bihotz Bakartien Klubaren azken lana ikusteko aukera izango da hurrengo egubakoitzean, azaroaren 26an, Bergarako gaztetxean, 22:30ean. Oraingoan Bihotz Bakartien Klubeko kide den Gotzon Barandiaranen poemekin ordubeteko saioa prestatu dute. Era berean, Barandiaranen poemetan oinarritutako animaziozko irudiak eskainiko dira egubakoitzeko saioan. Arte Ederretako ikasleek eta Begoña Vicario zinegile eta irakasleak jarri dizkiote irudiak Barandiaranen poesiari.



Iturgintza Berogintza Aire girotua Konponketa Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

EDEL TAPIZ DENDA


Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

KOLEKTOREKO OBRAK



Masterreka ixteak nahasmena ekarri du

Masterreka kalea ixteak hainbat aldaketa eragin ditu trafikoan: Barrenkaletik San Martin plazara joaten diren gidariek eskumara hartu ahal izango dute Gaspar parean. Handik behera egin eta Kruz Gallastegitik Zubietara irten ahal izango dira, Infernukua taberna zegoen lekutik hain zuzen ere. Era berean, Irala kaletik datozen gidariek bide hori hartu behariko dute derrigorrez: aste barruan, Iralatik Zubietara joan ahal izango dira bakarrik.

4.500 METRO HODI SARTUTA 3. ZATIAN

Ibarratik Bideberrira doan 3. zatian Sobrino enpresa dabil lanean. Dagoeneko 4.500 metro hodi sartu dituzte. Guztira, 6.200 metro tubo sartuko dituzte Sobrinoko langileek. 70 langilek dihardute.

IBARGARAIN, APARKALEKU PUBLIKORAINO

Ibargarai kalean aparkaleku publikoa dagoen tokiraino egingo dituzte kolektoreko lanak. Sobrino enpresako iturrien arabera, lanok Gabonetarako amaitu nahi dituzte.

TRAFIKO SEINALEAK ERRESPETATU

Obra direla eta, herrian dagoen nahasmena dela eta, Udaltzaingoak zera eskatzen die gidariei: jarritako behin-behineko seinaleak errespetatzeko.

ELKARRIZKETA

NAGORE IBARRA/ETORKINTZA FUNDAZIOKO DROGAMENPEKOTASUN TEKNIKARIA

“Nerabeen artean drogak saihestezinak dira; kontsumo problematikoa saihestu behar da”

EDU MENDIBIL

Udaleko Ongizate Zerbitzuak gazteen eta droga kontsumoaren gainean antolatutako jardunaldien barruan, Nagore Ibarra Etorkintza Fundazioko kideak prebentzioaren gainean jardun zuen martitzenean, kultura etxean.

Hainbat ikerketek diotenez, gazteen artan gora egin du kalamua, estasia edota alkoholaren kontsumoak. Prebentzioak kale egiten du?

Kontsumoak gora egitea baino, kontsumo hori gero eta lehenago hasten da, alkoholaren kasuan batez ere. Azken baten, giza aldaketak prebentzioaren aurretik doaz, gertatzen denaren atzetik ibiltzen gara lanean jeneralean. Gakoa da aldaketa horiei aurre egiteko errekurtsoak izatea. Eta prebentzio lan horretan guztiok hartu behar dugu parte: familiak, irakasleek, medikuek... Gizarte osoari afektatzen dion kontua da.

“Mozkortzeko helburuarekin edaten dutenean arazoa dator”

Gazteen kulturen drogak saihesteak ezinezkoa dirudi.

Nerabezaroa arriskuak norbere gain hartzeko etapa da, eta arriskueta bat drogak dira. Ezinezkoa da etapa horretan drogekin topo ez egitea, hainbat harreman droga kontsumoaren bitartez finkatzen baitira. Edozein modutan, kontsumo problematikoa duten gehienek ere fase hori gaindituko dute. Nerabezaroko egoera bat edo benetakoko egoera problematikoa baten artean ezberdindu behar da. Prozesu ebolutiboan drogak azaltzen dira eta oreka ezinbestekoa da. Egia da drogak gazteen kulturen daudela,



saihestezina da hori, baina kontsumo problematikoa izaten saihestu behar da.

Kalean litroak edatea oso modan dago aspaldian gazteen artean.

Tabernetan edateko aukerarik ez dutenez, nerabe askok lagunartean edaten dute, besteak beste, merkeagoa delako. Mozkortzeko helburu bakarrarekin edaten dutenean arazoa dator. Gure seme-alabei kontsumoa geldiarazteko edota ezetz esan ahal izateko errekurtsoak eman behar dizkiegu. Errekurtso horiek prebentzeko intentzioa izan behar dute eta gurasoek eta irakasleek badute zer esan horretan.

Gurasoek eta irakasleek badute nahikoa informazio prebentzioa lantzeko?

Informazioa ez da nahikoa izaten beti. Begira medikuak; birikietako minbizia ezagutzen dute eta beraiek dira gehien erretzen dutenak. Informazioa ez izan arren, prebentzioa oinarri duen jokabidea da garrantzitsuena.



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 Faxa: 943 78 15 51



MINGAINARITIRAKA



Maite
Lazkano

MOISES AZPIAZU DANTZA TALDEKO IRAKASLEA

Dantza solteko irakaslea da Maite Lazkano, Moises Azpiazu dantza taldean; berarekin batera, Irantzu Lizarralde eta Josune Fernandezek ere badihardute. Humanitate Enpresetan lizentziaduna da Maite eta 24 urte ditu.

Bakarrik edo bikotekidearekin dantza egitea nahiago? Bikotekidearekin.

Umeen dantza irakasle zara. Zela moldatzen zara umeekin? Oso ondo; asko gustatzen zait umeekin lan egitea, beti gustatu izan zaizkit umeak eta uste dut eurak ere gustura ibiltzen direla gurekin.

Trikitiatz aparte, ze dantza mota gustatzen zaizu?

Denetik; saltsa eta merenge ikastarotan ibili izan naiz, eta Sevillako dantzak eta sabeleko dantza ikastaroak egiteko gogoia ere badaukat.

Zer behar da dantzari ona izateko?

Lehenik eta behin, entzumen ona; gero, teknika, arintasuna, indarra...

Taula gainean oso ondo jarduten duzu, baina, plazan ere dantza egiten duzu?

Egia esan, nire ingurukoek dantza egiten badute, segituan animatzen naiz, baina, neu bakarrik sekula ez naiz dantzan hasten; kontua da nire ingurukoei kostatzen zaiela dantzan hastea.

Eta parrandan, tabernetan?

Kasu horretan errazago hasten naiz; denerako musikarekin dantza egiten dut.

Ze musika mota gustatzen zaizu?

Denerakoa: pop-rocka asko gustatzen zait, baina, baita musika lasaiagoa ere; Momentu bakoitzean, tokatzen dena.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Zinemara joatea, paseatzea, Realaren partiduak ikustea.

Film bat?

Mejor imposible.

Liburu bat?

El hombre que susurraba al oído de los caballos, Nicholas Evans-ena.

Urtaro bat?

Udazkena, paisaien kolorengatik.

Bukatzeko, amets bat?

Nik ikasi dudana horretan gustuko lan bat aurkitzea.

AINTZANE IRIZAR

KANPOTARRAK BERGARAN

CARLA MANERA

24 URTE / ARGENTINARRA / ORAIN DELA HIRU URTE ETORRI ZEN

“Jende askok dauka Argentinara joan zen ezagunen bat eta pozik entzuten dut hori”

AINTZANE IRIZAR

Hiru urte eta erdi darma Carlak gure ibarrean bizi izaten. Lehendabizi, Antzuolara etorri zen, eta gero, Bergarara. Euren hasierako asmoa, baina, ez zen Euskal Herrira etortzea, Italiara, baizik. Baina, planak aldatu egin zituzten: “Senitarteko bat Antzuolara etortzekoa zen, hantxe lagun bat zeukan eta; hortaz, senarrak eta biok erabaki genuen, hasiera baten, geu ere berarekin batera etortzea”. Lehendabiziko aste-etan Antzuolako lagun horren etxean egon ziren bizi izaten,

“Buenos Aireskoa izanda, Antzuolara iritsi ginenean, zeharo harrituta geratu nintzen”

Jokinen etxean, hain justu. Gutxi barru, etxebizitza bat errentan hartu zuten Antzuolan bertan.

“Iritsi eta Antzuola ikusi nuen, harrituta geratu nintzen; aldaketa handia izan zen niretako; Buenos Aireskoak gara eta horrelako hiri handi batek ez du inolako zerikusirik Antzuola bezalako herri batekin; ‘zer egiten dut nik hemen?’, galdetzen nion neure buruari”, gogoratzen du Carlak.

Iritsi eta bi astetara lana aurkitu zuen, Bergarako taberna baten. Hantxe jardun zuen urtebetez.

Gero, beste argentinarrarekin batera, taberna baten kargua hartu zuen, Bolun. Orain, bi urte daramate Bergaran bizi izaten; Carla, Fernando bere

senarra, Carlaren ahizpa eta Fernandoren arreba bizi dira elkarrekin.

Euskaldunen hainbat ohi-tura oso bitxiak iruditu zitzaizkien Carlari eta Fernando bere senarrari: “Lagun taldea elkartu eta tabernatik tabernara ibiltzea, esaterako, oso bitxia zen guretako; Argentinan, astebururo elkartzen ginen lagunekin, baina, etxean, ez kalean edo tabernan. Gurasoek ere, umearen bila eskolara joan eta ondoren kafetegira edo tabernara joaten dira kafetxoa hartzera; hori ere oso bitxia iruditzen zitzaigun”, diosku Carlak.

Jendearekin harremanean dago etengabe Carla, tabernaria da eta; hasieratik oso harrera ona egin diotela azaldu digu.


Zera gaineratu digu: “Gainera, ia jende guztiak dauka aitoren bat, osabaren bat edo senitartekoren bat Argentinara joan zena; hori entzuteak poztu egiten nau. Orain guri tokatu zaigu hona etortzea, hango egoera txarra delako, baina, garai baten euskaldun asko egon zen Argentinan”.

Euskara ez du oraindik ikasi, baina, badauka horretarako asmoa; “zertxobait ulertzen hasi naiz, baina, hitz egiten ez dut oraindik ikasi”, diosku. Azaldu digunez, euskaltegi-tako ordutegiak ez zaizkio ondo etortzen lanagatik, baina, saiatuko dela esan digu.

ARGENTINARA BEGIRA

Argentinatik etorri zirenetik, behin bakarrik itzuli dira hara, familia eta lagunak bisitatzera. Familia oraindik ez zaie etorri bisitan, ezin izan dute eta bidaiari hori ordaindu.

Sarri egoten da telefonoz haiekin, baina, bere nahia da urtero bisita bat, gutxienez, egitea. Oraingoz, hemen bizi izaten jarraitzeko asmoa dute Carlak eta Fernandok, baina, etorkizunean, Argentinako egoerak hobera egiten duenean, itzultzeko asmoa dute.



Jolas
Zure
Opari Donda



JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Bergarak beharrezkoa du bihar hiru puntuak lortzea, sailkapeneko zulotik ateratzeko.

FUTBOLA

Bergarak Real Union hartuko du zapatuan, Agorrosinen, 15:30ean

Preferente mailako taldeak ez du oraindik partidurik irabazi; azken tokian dira mahoneroak

E.M.

Bergara KEko preferente mailako taldeak Real Union izango du bisitari zapatuan, Agorrosinen. Dagoeneko 11 jardunaldi jokatu dira eta zaleak lehen garaipenaren zain daude oraindik.

Bergarak aukera paregabea galdu zuen azken jardunaldian lehen garaipena lortzeko. Pasaian, Trintxerperen aurka, ondo aritu ziren Igor Gordobilen mutilak, baina berdinketarekin konformatu behar izan ziren. Gol aukera gar-

biak huts egin ondoren, husnako berdinketarekin amaitu zen partidua. Gordobil pozik azaldu zen bere taldearen jokoak hobera egin duelako.

GAZTEK SEGURARI 10-1 IRABAZI

Aste buruan beste hiru partidu jokatu dira Ipintzan: infantila mailako futbol-8ko taldeak Arizmendiren aurka jokatu du zapatuan, 12:00etan. Arratsaldian, berriz, ohorezko kadete mailako Bergara eta Lengokoak taldeak izango dira aurrez aurre, 17:30ean. Domekan, berriz, partidu bakarra izango da: lehen

infantil mailan, Bergara eta Arrasateren arteko derbia izango da, 12:00etan.

Bestalde, lehen gazte mailako taldeak 10-1 irabazi zion zapatuan Segurari, Ipintzan. Denboraldi borobila egiten dihardute David Lopez de Abetxuko eta Jose Ramon Beristainen mutilek. Zapatuan Eloy Crespo (lau gol), Ibon Leibar (hiru), Alain Valle, Mikel Salegi eta Ander Macho izan genituen golegileak. Zapatuan Legazpin jokatu dute gazteek eta hurrengo jardunaldian Aretxabaleta liderra hartuko dute Ipintzan.

Muguruza-Gutierrez bikotea, Gipuzkoako finalerdietako atarian

E.M.

Ander Muguruza eta Igor Gutierrez Gipuzkoako Txapelketako finalerdietan izango dira, baldin eta gaur, egubakoitza, Amezketako bikoteari irabazten badiote.

Lehen senior mailako bikotearen aurretik bigarren mailakoak jokatu du: Ander Gabilondok eta Igor Apraizek Elgoibarreko Lagunak taldeko bikotearen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Mailaz jaisteko arriskuan da bikote bergararra, orain arteko partidu guztiak galdu eta gero.

Era berean, Gabon sariko benjamin mailako bi partidu jokatu dira gaur Udala Pilotalekuan. Pilota jaialdia 19:00etan hasiko da.



ARTIBOIA

Muguruzak (irudian) eta Gutierrezek finalerdietarako sailkatzeko aukera dute.

Bi irteera domekan eta azoka txikia abian Pol-Pol Mendizale Taldearen eskutik

E.M.

Eski eta mendi materialaren azoka txikia azaroaren 22tik 27ra bitartean irekiko dute Pol-Poleko egoitzan. Bestalde, bi irteera iragarri dituzte domekarako, bata Txingudira eta bestea Lizarraga aldera.

Aurreko urteotan bezala, bigarren eskuko materiala izango da salgai: eskiak, botak, txamarrak, pioletak, mosketoiak... Azoka txikia astelehenetik zapatuta bitartean egongo da zabalik, aste barruan 19:00etatik 20:30era eta zapatuan, hilaren 27an, 18:00etatik 20:00etara.

BI IRTEERA DOMEKAN

Mendia Bizirik eta Pol-Polek antolatuta, domekan Txingudira irteera ornitologikoa izango da, Plaiaundiko hegaztiak ikustera. Adituen eskutik hango hegaz-

ESKUBALOIA

Bergara KEko taldeek hiru partidu jokatu dituzte asteburuan Labegarietan

Bergara KEko gazte mailako nesken taldeak Arrateren aurka jokatu du bihar, zapatua, kiroldegian, 17:30ean.

Domekan beste bi eskubalo partidu izango dira Labegarietan: alde batetik, kadete mailako mutilen taldeak Arrate izango du bisitari, 10:30ean. Jarraian, bigarren senior mailako taldeak Urolaren aurka jokatu du, 12:15ean.

SASKIBALOIA

Kadete mailako mutilek Ordiziaren aurka jokatu dute zapatu eguerdian kiroldegian

Kadete mailako mutilen taldeak Ordiziaren aurka jokatu du bihar, zapatua, Labegarietako kiroldegian. Partidua 12:00etan hasiko da. Azken jardunaldian, Mikel Etxeberriaren mutilek Donostian galdu zuten Easo B taldearen aurka, 67-65. Bergararrak sailkapeneko goialdeko postuetan dira.

KIROLA

Udalaren dirulaguntzak jasotzeko eskariak egiteko epea, abenduaren 31ra arte zabalik

Bergarako kirol klub eta entitateek datorren urterako dirulaguntzak jasotzeko, abenduaren 31 baino lehen egin beharko dute eskaera.

Bestalde, 2004ko dirulaguntzen bigarren ordainketa jasotzeko, azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dituzte agiriak Udaleko Kirol Zerbitzuan. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

FUTBITOTXAPELKETA

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Canalejas-Kalaveras. **Antolaketa**
16:00: Fit Automocion-Irubi. **Belengua**

ZAPATUAN, KANPOAN

17:00: K.Piperrak-Belengua. **Fit Auto.**

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Fac-SDTNT. **Arrano**
17:00: Arrano-Errotagain. **Cosa Nostra**
18:00: Cosa Nostra-Mongatxurrak.

Ganbara

19:00: Pirulotarrak-Ganbara. **All Blacks**
20:00: Niu Tim-All Blacks. **Pirulotarrak**



ARTIBOIA

Azoka txikian bigarren eskuko materiala jarriko dute salgai.

tien gaineko azalpenak jasoko dituzte. Domekan 08:30ean aterako dira Komenioko lokaletik. Argibideak 943 76 48 51 zenbakian. Pol-Poleko eta Gorla Alpi-

noko beteranoek, berriz, domekan Lizarragara eta Urdiainera joateko irteera antolatu dute. Irteera izango da, 08:00etan autobus geltokitik abiatuta.

ELKARRIZKETA

INIIGO ANSUATEGI/ARRASATE ERRUGBI TALDEKO JOKALARIA

"Sasoa daukadan bitartean errugbian jokatzen jarraituko dut, gustura nabil-eta"

E.M.
Iniigo Ansuategi bergararrak (37 urte) hamabost urte daramatza Arrasate Errugbi Taldean. Aurten, mailari eusteko borrokan dira.

Taldeko beteranoena, ala?

Bai, Patxi Gorosabalek bakarrik daramatza ni baino urte gehiago taldean. Hark 40 urtetik gora dauzka. Ez dago erreleburik eta... Ni gustura nago eta sasoa daukadan bitartean jarraitzeko asmoa daukat. Senior mailakoan eta beterano-

en taldean ari naiz. Beteranoen partiduetan 30 urtetik gorako jendea dabil eta badira 60 urteko jokalaria ere...

Zelan hasi zinen errugbian?

Iniigo Olasolo laguna dut eta hura Donostiako UPV taldean zebilen jokatzen. Arrasateko taldera etorri zenean animatu ninduen eta biok hasi ginen. Bergarako hainbat lagun etorri ziren geroago baina momentuan ni naiz taldeko bergarar bakarra.

Ezaugarri berezirik behar al da errugbian aritzeko? Kirol gogorra omen da, ala?

Ez dut uste hain gogorra denik, mito faltsua da hori. Azken urteotan ez dut lesiorik izan eta hor gabiltzanok zintzo jokatzen dugu. Bestalde, ez dut uste errugbian jokatzeke aparteko ezaugarririk behar denik, gogoia izatearekin nahikoa da. Teknika denborarekin ikasten zoaz.

Zein postutan jokatzen duzu?

Pilier aritzen naiz, 3 zenba-

kiarekin. Aurrealdean jokatzen dut eta meleetan sartzea tokatzen zait niri.

Jokatzeaz aparte, errugbia jarraitzen duzu?


Bai, noizean behin joaten gara Miarritzera, hango taldearen partiduak ikustera. Frantziar errugbia gogoko dut. Bestalde, sei nazioen txapelketa ere jarraitzen dut, telebistaz.

Debagoieneko talde bakarra zarete. Nahikoa laguntza duzue?

Eskoletan errugbia lantzea falta da, zaletasuna pizteko. Bestalde, ekainean antolatzen dugun garagardo festa, kamiseten salmenta eta bazkideen kuotekin moldatzen gara. Hori bai, Atxabalpeko zelaia penagarri dago, lokatzez beteta.

Aurten ez duzue partidurik irabazi oraindik.

Aurreko denboraldian lehen maila nazionalera igo ondoren, mailaz ez jaista da gure helburua. Gogor borrokatu beharko dugu hori lortzeko.



ARTXIBOA

"Ez dago erreleburik. Eskoletan errugbia lantzea falta da, gazteen artean zaletasuna pizteko"

SAIO BEREZIA

Eski denboraldia 04/05



Azaroaren 29an, astelehena
21:30ean eta 23:00etan



Ikustekoa!



Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Etxerako ederrena, Zanguitun

deco-tex
ZANGUITU alfonbrak

- Alfonbrak
- Alfonbrak neurrira
- Funda nordikoak
- Edredoak
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

Herri lagunak 4. BERGARA
Tel.: 943 76 08 69

ZANGUITU margoak

Irala z/g BERGARA
Tel.: 943 76 19 54

IRU margoak

Araba etorbidea 3 ARRASATE
Tel.: 943 79 11 71

- Parket flotatzailea*
- Sintasola*
- Moketak*
- Paper pintatuak

* Salmenta eta etxean ipintzea.



2004ko azaroaren 19xa

Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 42. alia

IEPA LAGUNOK!

Gaurkuan, Patxi izeneko errementarixari zer pasau jakon kontatzera natorkizue. Bestalde aurreko astian zuek idatzitako txistiekin barre asko egin neban. Onenak aukeratu dittut eta barre egittia nahi badozue, txistiak irakurtzia gomendatzen dotsuet.



URREZKO ARAUAK

- Patxi gaiztakeriak egitten jarraitzen zebanez...
- Nahiz eta Axut kontu handiz juan...
- ~~la ke gaiztakeriak egitten jarraitzen zeban...~~
- ~~Aunke Axut kontu handiz juan...~~



IPUIÑA 'Patxi errementarixa'

Aralar izeneko herrixka batian Patxi izeneko errementari bat bizi zan. Inguruko danak Patxi oso gaiztua zala esaten zeben. Horregaittik, behin Zart izeneko diabru bat azaldu jakon inpernutik inpernura eruateko aginduarekin.

Hala juan zan Zart Patxiren sutegiraiño, eta hala esan zotsan:

- Egun on! Oso gaiztua zarela esan doste eta zu inpernura eruateko aginduarekin etorri naiz.
- Ez dago gaizki! Baiña oso urriñetik etorri zarenez, juan aurretik armozau egingo dogu.
- Ondo da!- erantzun zotsan Zart diabruak.



Patxi aulkixan jartzeko gonbitta egin zotsan diabruari. Bapo armozau ondoren, aulkittik altxatzen hasi eta... Zart ezin zan aulkittik altxau, kolaz igurtzitta zegualako. Hala, Zart diabrua hiru urte luzez aulki hartan itsatsita egon ondoren, inpernura bueltau eta beste diabruetara gertatutakua kontatu zotsen.

Patxi gaiztakeriak egitten jarraitzen zebanez, inpernu-

tik beste diabru bat bialtzia erabaki zeben. Axut izeneko diabrua juan zan Patxi inpernura eruateko asmotan. Nahiz eta Axut kontu handiz juan, hau be Patxi errementariaren tranpan jausi zan.

Oinguan arbola baten gainian kolaz itsatsita beste hiru urte luzez egon zan. Baiña aske geldittu bezain laster, segittuan bueltau zan inpernura eta gertautako dana kontau zotsen beste diabruetara. Diabru danak billera bat egin ostian, beste iñor ez bialtzia erabaki zeben.

Baiña urte gutxi barru Patxi errementarixari be heldu jakon heriotzaren momentua eta zuzenian inpernura juan zan ate joka. Diabruak atiaren beste aldian zeguana ikusi zebenian atiari gogor eutsi eta ez zabaltzia erabagi zeben. Han geldittu zan Patxi errementarixan ate onduan.

Handik egun gutxira, berak uste ez bazeban be, zerura juateko gonbitta egin zotsen. Ordutik aurrera zeruan jarraitzen dau Patxi.



APATXIZALION TXISTIAK

Andoni Etxezarreta 8 urte

- Kapitain jauna! Kapitain jauna! Ur azpira goiaz!
- Hago isillik, iñozo babaloriori! Hau submarino bat dok eta!

Olatz Azkarate 10 urte

Badoia langille bat karretilla batekin eta topo egin dau

nagusixarekin, eta nagusixak:

- Hor gehixago be kabitzen dok.
- Eta langilliak erantzun:
 - Baitta hillaren bukaerako sobrian be.

ELKARRIZKETA

JOSE LUIS PUMAR/MUSIKARIA

“Penaz utzi dut Musika Banda, lagun asko eta harmonia eman dizkit eta”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Santa Zezilia eguna musikari guztiendako izaten da berezia, baina aurten goa Jose Luis Pumarrendako inoiz baino bereziagoa. Izan ere, iaz utzi zuen Udal Banda eta aurten, beste hainbat kideri bezala, omenaldia egingo diote.

Noiztik diharduzu musikan?

Galizian, Ribadavian, hasi nintzen 14 urte nituela musika bandan. Soinu jole eta baterija jole banarekin orkestran ere jarduten nuen jatetxe batean kafe orduan. 19 urterekin Ferrolgo musika banda militarrean joan nintzen eta bertan hiru urte egin nituen. Lizentziatu ostean, hona etorri nintzen eta Bergarako Bandan 1956an sartu nintzen.

Bandan ez ezik bestelako musika taldeetan ere jardun duzu.

Bai, hala da. Erromerietan, ezkontzetan... jardun izan dut orkestra txikiekin.


Musika ikasketarik egin duzu?

Ez. Aita musikaria zen, eta partiturak utzi zizkidan. Nire kontura ikasi nuen lehenengo eta gero hark irakatsita. Ondoren, boluntario sartu nintzen banda militarrean eta bertan hiru urte eman nituen. Han prestatu ninduten, eta musikari nazional agiria atera nuen.

Beharbada domekakoa izango da inoizko kontzerturik bereziena zuretzat, ezta?

Badira 59 urte Santa Zezilia eguna ospatzen dudala. Baina domekako ospakizuna berezia izango da. Orain dela urtebete inguru utzi nuen Banda familia arazo batzuk zirela medio. Hemen ohitura dago Banda uzten dutenei omenaldia egiteko, beraz, pozik hartuko dut. Baina niretzat lagun musikariek ospatzea da politena. Izan ere, penaz utzi dut Banda eta negar ere egin dut, urte asko baitira talde horretan. Segituko duzu saxofoia jotzen?

Etxean lau musika tresna ditut, eta hartzen dut bat edo bes-



“Badira 59 urte Santa Zezilia eguna ospatzen dudala, baina domekakoa berezia izango da”

tea ospakizunen batean edo urtebetetze egunen batean jotzeko, eta gero ere noizean behin joko dudala uste dut.

Zer dela eta saxofoia?

Ez dut arrazoi berezirik izan horretarako. Banda militarrean klarineta jotzen nuen. Hona eto-

rri nintzenean *requinto* delakoa jotzen hasi nintzen, eta gero baita saxofoi tenorea eta altua ere. Inoiz flauta ere jo dut. Musika gustuko izan dut beti, eta haizezko edozein instrumentu jotzera moldatu naiz, bai bandan, bai orkestran ere. Zer eman dizu Bandak hainbeste urtean?

Bai bandak eta baita jo izan dudana gainontzeko musika taldeek ere lagun asko eman dizkide, eta baita harmonia ere. Nik ere musikarekin jende asko alaitu dudala uste dut.

Bandaren kontzertuetara joaten jarraituko duzu?

Noizean behin joango naiz eta Santa Zezilia eguna ere bizi naitzen artean ospatuko dut beti.

KULTURAPILULAK

Therion, Tristania eta Trail Of Tears taldeen kontzertua zapatuan Jam aretoan

Metal musika eta klasikoa konbinatzen dituen Therion taldeko hiru kideek (Christofer Johnsson-ek eta Kristian eta Johann Niemann-ek) *Lemuria* eta *Sirius B* diskoetako doinuak eskainiko dituzte bihar gauean Jam aretoan. Taula gainean jardungo dute baita ere Norvegiako Tristania metal taldeak eta Trail Of Tears taldeak. Azken hauek *Free Fall Into Fear* lan berria gertatzen dihardute. Aretoko ateak 20:00etan irekiko dituzte eta sarrerak bertan erosi ahal izango dira 20 euroren truke.

Bandaren kontzertua eta Musika Eskolako ikasleen kalejira Santa Zeziliaren omenez

Azaroaren 22an, Santa Zezilia, musikarien patroia eguna denez, herriko musikariek hainbat ospakizun egingo dituzte. Udal Musika Bandakoek 09:30ean meza izango dute San Pedron, kalejira ondoren eta gero kontzertua emango dute frontoian 12:30ean. Bandako partaide guztiak bazkaria izango dute ondoren Zumelagan. Bertan, Banda utzi duten lau kide omenduko dituzte: Iker Etxeberria, Jon Zangitu, Ana Moñux eta Jose Luis Pumar. Bestalde, Musika Eskolako ikasleek kalejira egingo dute 17:15ean eta ondoren txokolatada izango dute Mariaren Lagundiko patioan.



Hamahiru talde Txaparen urteurren jaietan

Txapa irratiak 20 urte bete dituela eta ekintzak antolatu dituzte. Asteon irratsaio bereziak eman ostean jai giroan ospatuko dute urteurrena asteburuan. Gaur, Inoren Ero Ni taldearen kontzertua izango da gaztetxean 22:30ean. Zapatuan poteoa egingo dute 13:00ean eta 14:30ean bazkaria. 18:30ean *Mai en klouncierto* antzezlan ikusteko aukera izango da eta 19:30ean kontzertua Extorsion, X-at, Harrikada, Iker *El poeta bolador*, Aby Kem, Stukas, Rotten Teenagers, Zampiter & The Test Tube Barbies, Azkaiter Pelox, Cool Panic, Black Sheeps, Troopers, Ostiada Oi talde eta bakarlariek. /A.

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75

ezpeleta

Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieteta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

GUREGAIK / 'BULLYING'-A

Eskola jazarpenaren aurkako neurriak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Eusko Jaurlaritzak hainbat neurri planteatu ditu eskolako jazarpenari aurre egiteko. Besteak beste, ikastetxeetan inkesta bat egingo dute arazoaren nondik norakoak ezagutzeko.

Azkenaldian hainbestetan entzun dugun eskolako jazarpenaren edo *bullying*-aren aurkako neurriak hartuko ditu Eusko Jaurlaritzak.

Neurrietako bat da irakasleek ikasgeletatik kanpo ikasleak gehiago zaintzea. Baina ikusita ikasleen jazarpena eskola inguruan ez ezik kalean ere gertatzen dela, udalei laguntza eskatu die Hezkuntza Sailak, Hondarribi-

koa bezalako kasu gehiagorik ez gertatzeko.

Gainera, senideek eta ikastetxeko arduradunek tratatu txarren kasuak antzemateko eta horiei aurre egiteko azalpen-foiletoak jasoko dituzte.

Bestalde, arazoaren nondik norakoak ezagutzeko, Hezkuntza Sailak inkesta bat egingo die 12 eta 16 urte bitarteko Bigarren Hezkuntzako 3.600 ikasleri 80 ikastetxetan.

ELKARBIZITZAN HEZI

Horrez gain, beharrezkotzat jotzen diren irakasleak elkarbizitzaren gaineko programen bidez hezteko. Hala ere, garbi utzi dute arazo hori ez dela eskolara bakarrik mugatzen, oro har gizarte osora baizik.



ARTXIBOA

Ikaskideen arteko borrokak izan ohi dira eskola jazarpenaren ezaugarrietako bat.

LOTSABARIK / Oier Aldai

“Etxean ikasten jarduteak nazkatzen nau”

I.A.


Azterketetan buru-belarri ibili da aste honetan Oier. Hala ere, ikastea ez omen du oso gustuko, eta liburuen artekin burua altxatu eta hartu du tartetxo bat gure galderei erantzuteko.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?
Boluko frontoian iturria ipiniko nuke.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?
Ez daukat bat bera ere.
- Tebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?
Gorrotagarriena, *Gran Her-*

mano. Gustukoen dudana, berriz, *Vaya Semanita*, aktoreak oso onak dira eta barrea eragiten didate.


- Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?
Crónicas Marcianas saioko aurkezlea, Xavier Sarda, ez zait batere gustatzen. Xala pilotaria, berriz, gogoko dut.
- Zerk amorratzen zaitu?
Ikasteak, etxean sartuta ikasten jarduteak nazkatu egiten nau.
- Zer estimatzen duzu besteengan?
Laguntasuna.
- Zer ematen diozu lehentasuna bizitzan?
Familiari, eta ondoren ikasketei eta kirolei.

- Zure bertute bat? Eta akats bat?
Bertutea, lagun ona izan naitkeela. Akatsa, berriz, ikasteko gogo falta.
- Zelan ligatzen duzue gazteok?
Modu asko daude ligatzeko. Adibidez, neska bat gustuko izanez gero lagun bati esatea.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?
Jatorra eta pertsona ona.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?
Holandara joateko gomendioa egin didate eta bertara joango nintzateke, lagunekin.
- Etorkizunerako amets bat?
Pilotari profesionala izatea da nire ametsa.




ADINA: 16 urte • IKASKETAK: DBHko 4. maila • ZALETASUNAK: Pilotan jokatzeko • LIBURU BAT: *Pesadillas* • FILM BAT: *Chufas chufurius* • MUSIKA TALDEA: RIP • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA / Peru Azkarate



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

1787an 3.719 biztanle zituen Bergarak. 1975ean izan ditu biztanle gehien: 16.198. Zenbat biztanle zituen 2003an? 14.050, 15.050 ala 16.050?

GALDEDEBALDE

1.

Zein hiritakoa da gure artean bizi den Carla Manera argentinarra?

- A/ Buenos Aires.
- B/ La Plata.
- C/ Rosario.

2.

Zein taldean ari da Iñigo Ansuategi errugbi jokalaria?

- A/ Getxo.
- B/ Arrasate.
- C/ Bera Bera.

3.

Zein urtetan hasi zen Jose Luis Pumar Udal Musika Bandan?

- A/ 1951n.
- B/ 1956an.
- C/ 1962an.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ARANTZA EGAÑArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Arantza! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: San Pedro. / Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA


H&S xanpua

300 ml

3,75 €

624 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



San Telmo museoa.

Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Etkez-etxeko zerbitzua
- Balorazio nutrizionala
- Ikastaroak
- Dieta pertsonalizatuak

(...)

mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943 76 60 45
(s) 646 43 34 58
(e) mireialber@euskalnet.net

Ibargarai 44 BERGARA
(t) 943 76 73 43

Olaran etxea, herriko plaza 3
20577 ANTZUOLA

ARDATZA
Brikolajea

- | | |
|--------------------|-------------------------|
| Ateak eta zokaloak | Koadroak marţoan ipini |
| Horma-armairuak | Era guztietako moldurak |
| Sarrailak | Apalak |
| Heldulekuak | Kaxoiak |

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

ERRETRATU ZAHARRA

BERGARA

Institutuko ikasleak, 1979

Dagoeneko 25 urte bete dira albo-ko argazkia atera zutenetik. Bergarako Batxilergo Institutuko ikasleak dira, UBI amaitu zuteneko lehen promoziokoak, hain zuzen.

Gaurko Ipintza institutua 1972an zabaldu zuten. Orduz gero bergarar asko eta asko igaro dira hango geletatik. 1997an, institutuak bere sorreraren zilarrezko ezteiak ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituen.

Esan bezala, argazkikoek Bergarako institutuan batxilergoa eta UBI amaitu zuten lehenak izan ziren.

Beraien jantziak ikusita, badirudi uda partean ateratako argazkia dela. Ordurako jakingo zuten kurtsoa gaindituta zuten edo, aldiz, irailerako ikasgaiaren bat edo beste geratzen zitzairen. Edozein modutan, lasai-lasai eta irribarretsu azaltzen dira gehienak institutuko berdegunean.

Haiek dituzue argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Arantza Iturbe, Mari Jose Garmendi, Jesus De Benito (irakaslea), Maria Eugenia Otamendi, Iñaki Osa, Begoña Garmendia, Montse Otazua, Juan Carlos Azula, Iñigo Korkostegi eta Jose Ignacio Aranes.

Jarrita: Maru Agirrezabal, Miren Aias-tui, Eva Agirre, Ana Cabezas, Mari Luz Urkiola, Belen Santorcuato, Laura Etxaniz, Ane Lizarralde eta Jose Cruz Ibar-guren.

Argazkia: Begoña Mujika



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

ETXAGI JATETXEA

Eraman eguneko menua zure etxera!



Masterreka 8 • Tel.: 943 76 53 12



943 76 20 61
BERGARA

Sugoi

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Etxeberria

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko azaroaren 19a / 223. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Zinema emanaldiak oraingo asteburuan hasiko dituzte

AINTZANE IRIZAR

Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte aurtengo ikasturteko zinema emanaldiak. Denboraldi honetan, gainera, izango dugu berritasunik; izan ere, gazteendako eta helduendako filmak ere eskainiko dituzte, egubakoitz gauean, hain zuzen ere.

Aurreko urtetan umeendako filmak bakarrik eskaini ditu Udalak Olanaren etxeko aretoan. Aurtengo denboraldian, baina, gazteendako eta helduendako filmak ere eskainiko dituzte. Eskaintza berri hori egubakoitz gauean izango da, 22:00etan.

Egubakoitzeko emanaldi hauek antolatzea erabaki du Udaleko Kultura batzordeak, udako Zinea izarpean programak arrakasta handia izan zuelako.

Domeka arratsaldetan, berriz, orain arte bezala, umeendako filmak ikusteko aukera izango dugu. Emanaldi horiek ere Olanaren etxeko aretoan izango dira, 17:00etan.

Helduen emanaldiei dagokienez, *Van Helsing* eta *Troya* izango dira lehenengo bi egubakoitzetan eskainiko dituzten filmak.



KONTUOLA

Van Helsing filmarekin hasiko dituzte emanaldiak gaur, egubakoitza, 22:00etan.

Umeei dagokienez, berriz, honako filmak ikusteko aukera izango dute: *Shrek II*, *Asterix eta Kleopatra*, *Hermano oso*, *Los tres mosqueteros*, *Pinocho 3.000* eta

Titin. Marrazoen aintzira.

Berria-ren bildumako hainbat film ere ekarriko dituzte; hala nola, *Rudy txerrixoa*, *Gezi urdina*, *Ipar haizearen erronka...*

Umeei 1,30 euro ordaindu beharko dituzte filmak ikusteko; egubakoitz gaueko gazte eta helduendako sarrerak, berriz, bi euro kostako dira.

HERRITARREN HITZA / Jone Lete • Langabetua

Antzuolara ere iritsi da

Iluntzeko zortziak ziren eta Eguzki auzoko sailhesbidean jarri nintzen herrira sartzen ziren autoei begira. Bat, bi, hiru, lau, bost... hamar auto sartu ziren herrira eta horietatik zazpi ezezagunak egin zitzaizkidan. "Antzuolara bizi izatera etorri den kanpoko jendea izango da", pentsatu nuen nire baitan.

Egia da, bai, inguruko herrietatik, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, jendea etorri dela gure herrira bizi izatera. Hau horrela bada, haurrak ere gehiago egongo dira, etorri den jendea gaztea da eta.

Hurrengo goizean eskola aurrera joan nintzen. Eskolara sartu ziren haur gehienak ezagutzen nituen, baina, guztiak ez; "beraz, egia izango da gure herria handitzen doala", pentsatu nuen. Haur haien gurasoak, ordea, ez ziren Arrasate, Bergara edo ingurukoak.

Beraien herrialdea utzi eta hona etorri dira zerbait hobea-



"Gurean ere aniztasun kulturala errealtate bihurtu da"

goaren bila. Ikusten da gurean ere "aniztasun kulturala" errealtate bat bihurtu dela, eta ez dela soilik Bartzelona, Madril, Gasteiz... eta horrelako hiri handietan gertatzen den fenomeno.

Inguruko herrietako jendeari kostatu egiten bazaio herrian integratzea, imajina dezagun

gure hizkuntza, kultura, ohiturak... ezagutzen ez dituen

pertsona bati zenbat kostatuko zaion.

Ireki egin behar gara eta gure kultura, ohiturak, herria... erakutsi, baina, beraiek eta beraien onartuz eta errespetatuz. Gaur egun, Antzuolan aniztasun kulturala badagoelako eta honekin bizitzen ikasi behar dugulako.

Anima gaitzen gehiago zabaltzen eta elkar ezagutzen herrian guztiok erosoago eta gusturago sentitzeko. Guztiok egin beharreko lana da, baina emaitza politak lortu ditzakegu herrian, eta herri aberatsago bat lortu.

LABUR

Gabonetarako 'Herria oparitu' lotea salgai

Herria oparitu izenarekin, Udalak salgai jarri du honako produktu sorta: *Antzuolako hizkera*, *Cesareo Gabarain*, *Antzuolako ohitura zaharrak* eta *Antzuola 1900-1970* libururak, alardearen gaineko bi liburuxka, herriko mapa eta *Barne-barnetik* bideoa. Udalletxean eta Itzar-en egongo dira salgai, 30 euroren truke.

Erretiratuek irteera egingo dute Azpeitiara

Azpeitiako trenaren museoa, Loiolako basilika eta San Inazioaren etxea bisitatzera joango dira erretiratuek hilaren 25ean. Izena emateko aukera izango duzue hilaren 22an eta 23an, 18:00etatik 19:00etara, erretiratuen lokalean. 9 euro kostako da bidai.

Santa Zezilia dela eta, kalejira egingo dute txistulariek

Datorren astelehenean, hilak 22, Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna dela eta, kalejira egingo dute herriko txistulariek, 19:30ean. Hilaren 28an, domeka, egingo dituzte Santa Zeziliaren ospakizunak. Meza ondoren, abesbatzaren emanaldia eta luncha izango ditugu.

Doro Zobaran ipuin kontalaria izango dugu zapatuan

Udal Liburutegiak antolatuta, Doro Zobaran ipuin kontalaria izango dugu bihar, zapatua, 18:00etan, liburutegian bertan. *Buhamea* ipuina kontatuko die han batzen diren neska-mutikoei. *Buhamea* herri herri, eskolaz eskola, auzoz auzo dabil eta horrela, horiek guztiak ikusi eta ezagutzen ditu.

IRAKURLIAREN TXOKUA

KABO, AMAIA ETA BESTE ATXILOTUAK ASKATU

Patxi, Amaia eta beste 15 euskaldun espainiar poliziak komunikatuta ditu Madrilen; ezagutzen dugu Garzonek euskaldunen aurka erabakitako hainbat agindü nola bukatu diren.

Joan zen astean, urruti joan gabe, 12 euskaldun atxilotu zituzten Bizkaian; zuzargarrizko tortura saioak iragan ondoren 8 lagun kalean Claude, xehehuta. Lehenik eta behin, salatu beharrekoa da 5 egunetarako heldu daitekeen komunikazio egoera; ez bere familiak eta ez beste inork atxilotuen berririk ez dugu.

Patxiren gurasoak adibidez, 15 ordu beranduago jakin dute, kanpoan bizi dira eta; ordura arte ezin izan gara harremanetan jarri.

Hori dela eta gaur, ostirala, manifestazioa burutuko dugu Zurrategin hasita.

Ez ditzagun Kabo eta Amaia inpunitate guztiarekin torturatzen utzi! Etor zaitez mobilizazioetara!

ANTZUOLAKO
ASKATASUNA

ELKARRIZKETA

IZASKUN LARRAÑAGA/PAUSOKA GURASO ELKARTEKO PRESIDENTEA

“Eskolako zaintza zerbitzuarena oso gai konplexua eta korapilotsua da, asko eztabaidatu beharrekoa”

A.I.

Martitzenean, hilak 23, urteko batzarra eta batzar berezia egingo ditu Pausokak. Batzar horietan landuko dituzten gaien gainean eta eskuartean dituzten erronken gainean berba egin dugu Izaskun Larrañagarekin.

Ze gai landuko dituzte urteko batzar orokorrean?

Batzar orokorrean, betikoa: urteko diru kontuak, urteko ekitaldiak zela joan diren aipatuko dugu eta datorren urteari begira ditugun erronken gainean ere jardungo dugu. Gainera, batzordekide berriak aukeratuko ditugu. Baina, aurretik, batzar berezia egingo dugu, estatutuetak bi puntu aldatzeko; batetik, batzordeak sei bokal izan beharrean, zazpi izatea erabakiko dugu; haurtzaindegiko ordezkaria izango da zazpigarren hori. Bestetik,

batzordekide izateko baldintzetako bat ere aldatuko dugu.

Zela joan da urtea?

Ondo, balorazio positiboa egiten dugu. Urtero bost ekintza antolatzen ditugu: Santo Tomas eguneko azoka, Gabonetan abes-tera irteten gara, aratusteetan torrada jana, jaietako umeen herri bazkaria eta tortilla lehia-keta; guraso askok parte hartu du ekintza horietan eta oso balorazio positiboa egiten dugu. Ikastaroak ere antolatu ditugu eta parte hartzea handia izan da.

Ze erronka dituzte aurrera begira?

Alde batetik, haurtzaindegia zabalduko dute laster eta hori erronka handia izan da. Bestetik, zaintza zerbitzuaren gaia darabilgu eskuartean; eskola orduetatik kanpo eskolak zaintza zerbitzua eskaintzearen gaia, alegia. Egia esan, oso gai konplexua eta korapilotsua da eta asko eztabaidatu beharrekoa.



A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Azaroak 20
10:00: Antzuola-Urki (Infantilak)
12:00: Antzuola-Almen (Neskak)
15:30: Antzuola-Bergara (Gazteak)
Azaroak 21
12:00: Antzuola-Urki (Kadeteak)

PILOTA

Azaroak 19 (Gipuzkoako Txapelk.)
21:00: Olalde-Gazteleku (paletaz nag.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Gazteak 3 Antzuola 2 (2. erreg.)
Axular 10 Antzuola 0 (Gazteak)
Antzuola 3 Bergara 4 (Kadeteak)
Urola 3 Antzuola 1 (Neskak)
Arizmendi 0 Antzuola 7 (Infantilak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Bergara-Olalde (eskuz inf.) ... 18-17
Olalde-Zazpi Itturri (eskuz kad.) ... 16-22
Olalde-Ozkarbi (eskuz nag.) ... 11-22
Olangu-Olalde (paletaz nag.) ... 35-23



Pala txapelketa hasi dute

Olalde elkarteko pala jokalariek aurreko asteburuan jokatu zuten denboraldi berriko lehendabiziko partidua. Kanpoan jokatu zuten partidua hori, Ordizian, eta ezin izan zituzten menpean hartu ordiziarrak; 35 eta 23 galdu zuten antzularrek.

Oraingo asteburuan etxean jokatu dute, Gaztelekuaren aurka; gaur, egubakoitz, izango da hori, 21:00etan.

Bost jokalarik dihardute pala txapelketan: Gorka Iturbek, Jon Alberdik, Iker Mansok, Balendin Zabalok eta Gotzon Zabalok, hain zuzen ere. /A.I.

Harizki

SUKALDEKO ALTZARIAK

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko azaroaren 19a / 207. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Aurtengo ikasturtean 40 ikaslek dihardu Eskola Kirol programan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ikasleen artean kirol zaletasuna bultzatzeko, aurtengo ikasturtean ere Eskola Kirol programa ipini dute abian Elgetan. 40 ikaslek dihardu jardueretan eta horien lana koordinatzeko baita hainbat eragile ere: eskola, Udala eta gurasoak besteak beste.

Ikasturtearekin batera hasi zituzten Herri Eskolako hainbat ikasleek Eskola Kirola programako jardunak. Eskola orduetatik kanpo antolatutako kirol ekintzek osatutako programa da. Bertan, 6 eta 16 urte bitarteko ikasleek kirol bat baino gehiago praktikatzeko aukera izaten dute.

Programaren helburuak kirol ezberdinak ezagutaraztea eta kirola modu egokian eginez ongi pasaraztea dira; bide batez baita haurrak heztea eta garatzea ere.

ERAGILEAK

Eskola Kiroleko jardueren antolakuntzan hainbat eragilek hartzen du parte: Udal Kirol Zerbitzuak, gurasoek eta Eskolak esaterako. Euren lana ezinbestekoa da programa aurrera ateratzeko.



Oinarrizko soin hezkuntza eskolak kiroldegiko gimnasioan izaten dituzte gaztetxoek astean behin.

Aurten guztira 40 ikaslek dihardu Eskola Kirolean: oinarrizko soin hezkuntza taldean 14 lagunek, benjamin mailan zortzik, alebin mailan 13 neska-mutilak eta pilotako taldean bostek.

Benjamin eta alebin mailetako taldeek eskolen arteko lehiaketan hartzen dute parte Bergara eta Antzuolako taldeekin. Partiduak zapatuetan jokatzeko dituzte. Elgetako ikasleek Antzuolakoekin dihardute hainbat taldeetan. Beraz, kirol arloa lantzeko ez ezik, lagun berriak egiteko aukera dute ikasleek, eta programan parte hartzera animatu nahi dituzte eragileek.

Eskola Kirol programa eragileen eta partaideen hitzetan



OSKAR CARRASCAL
Udal Kirol teknikaria

Partaidetzari dagokionez kopuru egokia dago Elgetan, baina zailtasun handiena taldeak osatzeko izaten da, gela bakoitzean ume gutxi baitago.




JOSU ETXANIZ
Eskola Kiroleko begiralea

Txikien begiralea naiz jolas jardueretan eta hauek funtsezkoak dira umeen izaera garatzeko, gorputza ezagutzeko eta batik bat ondo pasatzeko.




JOSU DE VEGA
Alebinen arduraduna

Gurasoek ahalegina egin behar lukete seme-alabak Eskola Kirol programan parte hartzera animatzeko, bestela taldeak desagertzeko arriskua baitago.



GAIZKA MORALES
Ikaslea

Oinarrizko soin hezkuntzako eskoletara joaten naiz gimnasia gustuko dudalako, eta beharbada gerora futboleko jokatu dut eskolako taldean.



ANTXON MAÑARIKUA
Benjaminen arduraduna

Umeendako oso interesgarria da kirol jardueretan parte hartzea ikasteko gogoia dutelako, eta guk borondatez lan eginez gero motibatzea lortzen dugu.

LABUR

Izaskun Ojanguren gaur Danbaka lehiaketan

Izaskun Ojanguren gaur Espaloia kafe antzokian izango den Danbaka musika lehiaketako hirugarren saioan hartuko du parte. Astea entseatzeko eman du *Izas*-ek, eta bere asmoa da Espaloira doazen entzuleek bere musika gustuko izatea. Horretarako, ahalik eta saio onena egiten ahalginduko da, nahiz eta esan duen urduri dagoela. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta *Izas*-ek ez ezik Isarevolution, Malenkonia eta Muted taldeek ere jardungo dute. Bestalde, Danbaka lehiaketan falta den Elgetako taldearen, Ostiada Oi!-ren, emanaldia abenduaren 3an izango da.



Izas-ek pop doinuak eskainiko ditu.

Eguneko zentroa astelehenean zabalduko dute

Datorren astelehenean, azaroaren 22an, zabalduko dute eguneko zentroa. Zazpi lagundako tokia badago ere, adinako bost pertsona izango dira hasieran: hiru elgetar eta bi eibartar. Horiakin, garbiketaz eta jatorduez arduratuko den langile bat eta beste laguntzaile bat egongo dira eguneko zentroan. Zaintzapeko etxebizitzan, berriz, ez da inor egongo oraingoan. Denbora epe baten ostean, beste herritar batzuek bertara joateko interesa azaldu ezean, kanpoko emango diete aukera.

KULTURA

'Chillida Lekutik' ikuskizuna eskainiko dute Joserra Senperenak eta Jose Ignazio Antsoarenak bihar Espaloian

IRATI AGIRREAZALDEGI

Chillida Lekutik ikuskizuna aurkeztuko dute bihar, zapatua, Espaloia kafe antzokian. Jose Ignazio Antsoarenak eta Joserra Senperenak elkarlanean gertatutako proiektua da hori, eta emanaldian eurekin izango dira Andoni Egaña, Kirmen Uribe eta Jon Maia.

Joserra Senperena piano joleak eta Jose Ignazio Antsoarena txistulariak telebistako *Funtzioa* programan hasi zirenetik hainbat proiektu eta lan musikaletan jardun dute elkarrekin, nahiz eta bien jatorri musikalak oso ezberdinak izan. Senperenak pop, blues eta jazzaren bideak landu ditu, Antsoarenak, aldiz, musika tradizionalari erreparatu dio.

Bien jatorriak elkartu eta musika emanaldi bat gertatu zuten, eta horren emaitza da, hain zuzen ere, *Chillida Lekutik* ikuskizuna, klasikoa, herrikoa eta aldi berean garaikidea.

Txillida-Lekun bertan aurkeztu ostean, zapatu honetan Espaloian egingo dute emanaldia 23:00etan. Sarrerak Espaloian bertan erosi ahal izango dira zortzi euroren truke.

"Ikuskizun klasikoa, herrikoa eta era berean garaikidea izango da 'Chillida Lekutik'"

Joserra Senperenak pianoa joko du ikuskizunean eta Jose Ignazio Antsoarenak, berriz, txistua. Ohikoak dituzten musika tresnekin, herri ondaretik jasotako doinuak, konposaketa berriak eta moldaketa musikalak eskainiko dituzte.

Ikuskizunean eurekin jardungo dute Andoni Egaña bertsolariak, Kirmen Uribe idazleak eta Jon Maia bertsolariak. Grabazio prozesuan ere hartu dute parte artista horiek.

DISKOA

Senperenak eta Antsoarenak asteon aurkeztu dute *Chillida Lekutik* diskoa. Bertan, musika klasikoa eta folklorea uztartzen dira, eta lanaren interes kulturala eta kalitate maila nabarmendu dituzte aurkezpenean.



Senperenak pianoa joko du eta Antsoarenak txistua.

ARTXIBOA

POLITIKA

Aralarrek udalbatzar berezia eskatu du herri plataformaren gaia eztabaidatzeko

Elgeta Auzolanian plataformak Udalean ordezkari izateko aukerak aztertu nahi ditu Aralarrek. Horretarako proposamena aurkeztu zieten alderdiko ordezkariak EAJ-EAri eta Auzolanian plataformari.

Gaia udalbatzarrean eztabaidatzeko asmoz urrian mozio bat aurkeztu zuen Aralarrek, baina alkateak ez zuen hurrengo udalbatzarreko gai zerrendan sartu. Beraz, Aralarrek udalbatzar berezia eskatu zuen mozio hori eztabaidatzeko. Batzar berezirako deia alkateak 2005eko urtarrilaren 4rako egin du.


MOZIOA

Aralarrek mozio horrekin nahi du Udalean plataforma legez kanpo uztearen gaineko elkarrizke-

ta eta adostasuna lortzea eta alderdi guztiek herritarrei euren iritzia azaltzea.

Udalbatzari aurkeztutako mozioan, besteak beste, zera diote Aralarreko ordezkariak: "Herri plataformari dagokion ordezkari politiko gauzatu ahal izateko konponbidea bilatu behar da, eta horretarako konpromisoa hartzen dugu. Mozio hau onartzen ez duten udal taldeei eta oraingo udalbatza honetan parte hartzerik ez duen herri plataformari, lehenbailehen konpromiso hori har dezaten eskatzen diegu".

Aralarrek ez ezik Elgeta Auzolanian plataformak ere aurkeztu zuen gai beraren gaineko beste mozio bat udaletxean, baina oraindik ez da udalbatzarrean eztabaidatu. Beraz, datorren urte hasieran landuko dute gaia udalbatzar berezian.



Aralar hiru zinegotziek aurkeztu dute mozioa udalbatzarrean eztabaidatzeko.

BETERANOEN TXAPELKETA

PARTIDUAK

AZAROAK 14, BARIKUA

21:00: Iñaki Izagirre/Jabier Bolinaga-Angel Ibarluzea/Txapel
Ondoren: Mikel Larrea/Mikel Arkarazo-Iñaki Ugarteburu/Enrike Ruiz

AZAROAK 21, DOMEKIA

11:00: Satur/Migel Arantzeta-Koldo Goenaga/Roberto Basauri
Ondoren, Jabier Otxoa/Mikel Elkorro-I. Ugarteburu/Anton
Gero, Alex Arantzabal/Alberto Telleria-Pello Larrea/Joseba
Ondoren, J.C. Errasti/Jesus Belamendia-Eduardo Zubiaurre/J.M. Zubiaurre

EMAITZAK

Pello Larrea/Joseba-Asier Morales/Fernando Zenitagoia .9-22
Eduardo Zubiaurre/J.M. Zubiaurre-Alex Arantzabal/Alberto Telleria . . .14-22
Migel Arantzeta/J.M. Arantzeta-Angel Ibarluzea/Txapel18-22
Javier Bolinaga/Iñaki Izagirre-Mikel Larrea/Mikel Arkarazo18-22
Jabier Otxoa/Mikel Elkorro-J.C. Errasti/J. Belamendia11-22

DANBAKA))))

DEBAGOIENeko I. MUSIKA LEHIAKETA

SMS MEZUAK

Gustukoen duzun talde, bakarlari edo abestiari lagunduz, zuk ere saria irabazi!

Mezuak bidaltzeko jarri:

DANBAKA (tartea) PARTAIDEAREN IZENA eta bidali 7744 zenbakira.

Mezu bakoitzaren kostua 0,9+BEZa.





Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Opel Astra berria

Ulertzen duzu zergatik dioten etorkizuna
geroz eta azkarrago datorrela?



Etorkizuna heldu da Opel Astra berrira. SAFETEC sistemari esker teknologia aurreratuenaz bere mailako autorik seguruena da EuroNCAP* 5 izarrekin. Diesel gamako motor indartsuenak eta ondorengo motor berriekin 1.9 CDTI 120 ZPtik 150era eta gasolina motorrak 200 ZPrainokoak.



Eta gainera ekipamendu osoenarekin: •IDS^{plus} Gidatze Sistema Interaktiboa •ESP^{plus} Egonkortasunaren Kontrol Elektronikoa •Tcplus Trakzio Kontrola •Sport Switch botoia •AFL faro moldakorak •ALC argitasunaren kontrol automatikoa •ABS balazta sistema •6 aire-zaku •CBC Balazten Kontrola Bihurguneetan •EHPS Direkzio Lagundua •HSA Irteera Sistema Aldapetan.

12.670 €** Astra bat daukazu. Proba ezazu 902 200 590 telefonoan edo www.opel.es webgunean.

*Puntuazio altuena alboko eta aurretiko inpaktuan txoke proban eta umeen babesean Sedan trinko kategorian. **Salmenta prezio gomendatua Penintsulan eta Balearretan Opel Astra Essentia 5 ate 1.4 16v 90 ZP autoarentzat hilabete bukaera arte. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, kit akzesorioak, promozioko deskontua eta gasolina Prever Plana barne. Astra gama: kontsumoa (l/100km) mistoa 4,9tik 9,3ra. CO2 emisioa (g/km) 132tik 223ra.

Giauto

Olabarrena, z/g. Tel. 943 76 33 44/46. **BERGARA**